



Goierri eta Lapurdiko ikastolak Hamasei urtez bat eginda

Gurasoen txokoa Asebetetze inkestaren emaitzak
Zertan gabiltzan Zaborra kudeatzen



jakintzaikastola

agenda

MANU OLANO
Jakintza ikastolako zuzendaria



Harremanak

Zenbat ahalegin, zenbat denbora, zenbat bitarteko eskaintzen ote diogu gizakiok geure arteko harremanei. Esandakoa egia izanik, ados egongo zarete buruhausteak ere asko eta handiak izaten direla gizakion harremanak tartean daudenean.

Ez da guk asmatua baina, giza harremanen mundu zabalean atalen batek bikaina izan behar badu, guraso eta seme-alaben artekoak izan beharko luke. Gauza bera esan liteke, esan behar da irakasle eta ikasle artekoari buruz ere. Eredu batean eta bestean erraza dirudien arren, ez da beti horrela izaten.

Heziketarekin erlazio zuzena duenez, beti parez pare daukagun gaia da harremanena. Ez da gauza berria. Azkenaldian, arrazoi bat baino gehiagorengatik berriro gaia eskuartean dugu Jakintzan.

Esan dugu, guraso eta seme-alaben arteko harremanak bikaina izan behar lukeela. Esango duzue beti ez dela erreza, baina ziur gaude horretan ahalegingarriko zaretela. Gauza bera diogu irakasle eta ikasle artekoaz ere. Ondo dakigu ez garelako zehatz bateko irakasleak bakarrik, hori baino askoz erakargarriagoa eta zabalagoa dela gure zeregina. Badakigu ez dela erraza, baina horretan dihardugu.

A pesar de la dedicación, del esfuerzo y de los medios que invertimos los seres humanos en nuestras relaciones, no puede negarse que éstas nos dan no pocos quebraderos.

Si alguna relación debiera rozar la perfección, ésta tendría que ser la establecida entre padres e hijos y al mismo nivel y de igual modo, la relación entre profesor y alumno; sin embargo, no es tarea sencilla y es por eso que incidimos una y otra vez sobre la misma cuestión. Sabemos de su importancia así como del trabajo que os requiere y nos requiere como profesionales, de ahí que sea una de las prioridades que perseguimos y por la que trabajamos.

Erlazio binkularrak

Azaroaren 22an eta 29an prestakuntza saio trinkoak izan ditugu Jakintza ikastolako irakasleok. Ikasturteko lehenastunetan finkatuta genuen prestakuntzaren zati garrantzitsua burutu dugu egun horietan. Prestakuntza jasotzeko gure artean izan dugu Roberto Aguado psikologoa, esperientzia handia duen aditua. Adimen emozionala, konpetentzia emozionala, emozioen kudeaketa, erlazio binkularra, eta abar izan dira landu ditugun gaiak.

Gaur egun inork ez du zalantzan jartzen emozioen garrantzia gure bizitzako atal guztietan dagoela. Aguadok esaldi baten bidez laburbildu zigun hori: "Gure bizitzan emozioek erabakitzen dute, arrazoiak justifikatu besterik ez du egiten".

Pertsona batek eta ikasle batek, modu egokian garatu eta aldi berean erakargarri ikas dezan, zein emozio lehenetsi behar dituen eta zein alboratu utzi gogorazi zigun Aguadok. Emozio ezberdin horien kudeaketa egiteko irizpide batzuk eskaini zizkigun. Ikasle eta irakasle arteko erlazio horretan irakasleen zeregina zein izan beharko lukeen etab.

Lehendabiziko egunean, batez ere saio teorikoa izan genuen. Bigarren egunean, berriz, ariketa praktiko ezberdinak egin genituen emozio ezberdinak kudeatzen ikasteko.

El profesorado de Jakintza participó el 22 y 29 de noviembre en las sesiones formativas impartidas por el psicólogo Roberto Aguado. Se trataron temas y conceptos como la inteligencia emocional, la competencia emocional, la gestión emocional y la relación vincular.

A día de hoy nadie cuestiona la importancia de las emociones en el día a día. Así lo ha resumido Aguado: "En nuestra vida deciden las emociones, la razón sólo justifica la decisión tomada".

En las formaciones impartidas, Aguado nos recordó cuáles son las emociones imprescindibles en nuestras vidas, y cuáles son los que nos perjudican. En ese aspecto, destacó cuál debería ser la función del profesor.

IRAILA

LEHEN HEZKUNTZA

Maila guztiak: Donostiako Zinemaldira *Nire aita zombia* da pelikula ikustera.

URRIA

HAUR HEZKUNTZA

4 urtekoak: Herrira irteera.
5 urtekoak: Zumarragara irteera trenez.

LEHEN HEZKUNTZA

1. eta 2. mailakoak: Eroskik antolatutako *Osasunarekin konprometituak* ekimena.
1. mailakoak: D' elikatuzera bisita.
3. mailakoak: *Hondakinak eta kitto* saioa.
4. mailakoak: Oñatiko Arrikruzera irteera
5. mailakoak: Iruñeko Planetariumera bisita.

DBH

Maila guztiak: Kurtso hasierako bilera.
4. mailakoak: Irteera.

AZAROA

HAUR HEZKUNTZA

2 urtekoak: Azokara irteera.
4 urtekoak: Larraitzera irteera.
5 urtekoak: Tolosako Topic-era irteera.

LEHEN HEZKUNTZA

1. mailakoak: Karrantzako Karpin abentura dinosaurioen museoari bisita.
1. mailakoak: Arriarango araztegiara irteera. Uraren inguruko saioa.
2. mailakoak: Ordizia Erdi Aroan ezagutzen D'Elikatuzen.
2. mailakoak: Erriberriko jauregiara (Olitako gaztelua) irteera.

DBH

1. 2. eta 3. mailakoak: *Garbot* filma ikustera.
4. mailakoak: Genero indarkeriaren aurkako ekintza.

ABENDUA

OROKORRA

Euskararen Normalizatorako kide tutako ekintzak ikastetxeke talde guztien artean. Euskararen eguna. Santo Tomas eguna.

HAUR HEZKUNTZA

Ikasle guztiak: Argibxoren urtebetetzea.

LEHEN HEZKUNTZA

Maila guztietakoak: Gabon kantuak Ordizian.

DBH

2. mailakoak: Peter Roberts-en alkoholaren prebentzioarako mimo saioa Herri Antzokian.
3. mailakoak: Ttakun.
3. mailakoak: Gasteizera irteera.
4. mailakoak: Donostiako Txuri-urdin izotz jauregian patinaje ikastaroa.

Asebetetze inkestaren emaitzak



A finales del curso pasado se envió una encuesta a los padres del último curso de Infantil, a los de 3º y 6º de Primaria y a los de 4º de ESO y Bachillerato para pulsar el grado de satisfacción con respecto al funcionamiento de la ikastola.

Atendiendo los resultados del curso 2011-12 se puede decir que el índice de satisfacción de los padres es elevado, pero no por ello dejaremos de trabajar en nuestro afán por mejorar.

Para una mejor interpretación del gráfico, en él aparecen los once apartados en los que se dividía la encuesta, así como la puntuación media otorgada a cada uno de ellos (de uno a diez) en los cuatro últimos años.

2011-12 ikasturteko gurasoen asebetetzeari dagozkion datuak azalduko dizkizuegu jarraian. Aurreko ikasturteetan bezala, HHko 5 urteko, LHko 3. mailako, 6.mailako, DBH 4ko eta DBHO 2ko gurasoei pasa zitzairen inkesta. Orain guri dagokigu bertako emaitzak azaltzea.

Datu orokorreari dagokionez, esan daiteke gurasoen asetze maila altua dela, eta aurreko ikasturteetako datuen inguruan dabilzala. Halere, badaude ñabardurak eta grafikoa ikus dezakezue eremu bakoitzaren bilakaera.

Urtero egiten den moduan, iazko ikasturte amaieran sakon aztertu ziren emaitza guztiak eta

zalantzarik ez dugu oraindik zer hobetua badugula, eta horretan jarraitu behar dugula.

Grafikoa ulertzeko, bertan ikus ditzakezue inkestan galdetu ziren 11 atal nagusiak eta bakoitzari eman diozuen puntuazioaren batez bestekoa. (Balorazioa 1etik-10era izan zen). Grafikoa lau ikasturteetako emaitzak agertzen dira (2008-09 , 2009-10 , 2010-11 eta 2011-12)

Eskerrak eman nahi dizkizuegu jasotako erantzunarengatik, izan ere, oso baliagarria eta garrantzitsua baita gurasoengandik jasotako informazioa eta iritzia.

| | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 |
|---|------|------|------|------|
| Irakaskuntza - apendizaiia | 8 | 7,9 | 8 | 8 |
| Tutoreekin harremanak | 8,86 | 8,6 | 8,3 | 8,3 |
| Lana ebaluatze modua | 8,04 | 7,8 | 7,6 | 8 |
| Orientazio zerbitzua | 7,46 | 7,6 | 8,1 | 7,7 |
| Eskolaz kanpoko jarduerak | 7,61 | 7,6 | 7 | 7,6 |
| Funtzionamendu orokorra | 7,93 | 7,8 | 7,8 | 7,5 |
| Ikastola eta guraso arteko komunikazioa | 7,8 | 7,7 | 7,9 | 7,5 |
| Gestio organoen funtzionamendua | 7,8 | 7,7 | 7,8 | 7,3 |
| Autobus zerbitzua | 8,7 | 8,5 | 8,5 | 8,6 |
| Jangela zerbitzua | 8,12 | 7,8 | 7,9 | 7,3 |
| Hautzaindegia | 8,48 | 8,3 | 8,5 | 8,3 |

2011/2012ko galdera irekiak

HAUR HEZKUNTZA

- Psikomotrizitatea lantzeko Aucouturier metodoa erabiltzea eta horretarako beharrezkoa den prestakuntza jasotzea irakasleak.

LEHEN HEZKUNTZA

- Creo que hay que trabajar más el area de los valores y la integridad de la personas. Puede ser tema para la formación del profesorado.

- Mesedez ez galdu motibazioa eta ilusioa. Haurrei maitasuna eta ardura emanez hobeto ikasten dutela uste dut.

DBH

-Creo que se deben de potenciar y sistematizar los intercambios con otros centros extranjeros.


- Batzuetan arauak betetzen ez direnean, ikasleak zigortu egiten dira. Gertaera askotan errepikatzen bada, gelako giroa asko okertzen da.

ZERBITZUEI BURUZ


- Organizar mejor el tiempo desde que acaban de comer hasta que empiezen las clases a las 14:30. Más vigilancia en el patio.

- Liburutegia edo beste gela bat beharkoa litzatekeela uste dut hotz handia edo eguraldi txarra egiten duenean.

- En el registro del comedor solo indica " ONGI" . Me gustaría recibir información acerca de la duración de la siesta.



GOIERRI ETA LAPURDIKO IKASTOLAK IKASTOLEN LANKIDETZA,



Ordizia, Beasain eta Lazkaoko ikastolek hamasei urte egingo dituzte aurten Urruña eta Ziburuko ikastolekin elkarlanean. Urtean bi emanaldi antolatzen dituzte Goierrin eta Lapurdin, Iparraldeko ikastolei sostengu ekonomikoa eskaintzeko. Baina ez dira ekimen bakarrak, urtean zehar ere Goierriko hainbat udal, enpresa eta kultur elkartek laguntza ematen baitiete. “Aurrera jarraitzeko ezinbesteko laguntza”, Urruñako ikastolako kideen esanetan.

Ikastolak herri ekimenetik sortuak dira. Goizago ala beranduago, lekuan lekuko beharrei erantzuteko sortutako proiektuak. Betebehar horretan, euskara eta euskal kultura sustatzea izan da orohar ikastolek izan duten eginkizun nagusia. Baina ez da hori ikastolen bereizgarri bakarra. Sare bat osatzen duten heinean, elkarlaguntza eta elkartasuna bezalako hitzak ere ikastolen hiztegiaren txertatuta baitaude. Esandakoa frogatzeko arrazoi ugari

topa daitezke, baina gertura begiratu gero, elkarkidetzaren horren adibide garbi eta sendo bat topa daiteke: Goierri eta Lapurdiko ikastolen artekoa, hain zuzen ere.

Hamasei urteko elkarkidetzaren harremana daukate Ordizia, Beasain eta Lazkaoko ikastolek Urruña eta Ziburukoekin. Urtero-urtero hainbat jaialdi egiten dituzte Goierrin eta Lapurdin, Iparraldeko bi ikastolei sostengua emateko asmoarekin. “Guretzat diru iturri nagusietako bat da jaialdi horietatik biltzen duguna”, dio Maritxu Larzabal Urruñako ikastolako kideak. Urtetik urtera, gainera, emendatzen ari dira bi ikastoletako ikasleen kopuruak, eta horregatik laguntzaren behar hori

hazten ari da uneoro. “Hegoaldean bezala, Iparraldean ere krisi egoeran gaude, beraz, badakigu ez dela erraza dirua ematea. Baina ematen jarraitzen dute, eta hori biziki garrantzitsua da”, dio Larzabalek.

Baina Iparraldeko ikastolen aldeko sostengua ez da jaialdien bidez bakarrik lortzen. “Goierriko lantegi, udal edo kultur elkarte ugarietara joaten gara urtero laguntza horren eske, eta bide horretatik ere kopuru handia lortzen da Iparraldeko ikastolen alde”, dio Agus Zinkunegi Iparraldeko kultur elkarteko kideak.

Ekimenaren abiapuntua

Lapuri eta Goierri elkarten dituen ekimen honek Seguran antolatzen den Iparraldeko Hegoa asteburu kulturalan dauka sustraiak. 1995ean Urruñako

HAMASEI URTEZ BAT EGINDA AURRERA EGITEKO GILTZA



eskaintzen dituzte pailazoek egun berean. “ Familia anitz elkartzen dira euskararen inguruan, eta emanaldi bakoitzeko 1.500-2.000 pertsona artean biltzen dira” , Larzabalen esanetan. “ Garrantzitsua da hori guretzat” . Aurten ere bi emanaldi eskainiko dituzte pailazoek hilaren 30ean, beraz, aurreikuspenen arabera, azken urteetako joera errepikatuko da.

“Krisi egoeran badakigu ez dela erraza dirua biltzea. Horregatik, biziki eskertuta gaude”

MARITXU LARZABAL

Pirritx eta Porrotx pailazoek Majori kiroldegian eskainiko duten emanaldi bikoitza, gainera, berezia izango da aurten. Eta ez soilik jaialdian hamar urtez parte hartzen ari direlako. Beste urteurren baten ondorioz baizik: pailazo gisa lanean hasi zirenetik 25 urte igaro direlako.

“Urtero etortzen gara motibatuta Ordiziara, baina aurten plus bat izango dugu urteurren hori dela eta”, azaldu du Agirretxek. Eta zer izango du berezia ekitaldiak? Bada, besteen artean, ibilbide luze horretan eurekin parte hartu duten lagunak oholtza gainera igoko direla, “ eta amona Joxefina ere zorionduko dugu, gu denon ama den heinean” .

Aurreikuspenak betez gero, beraz, urte ona izango da Urruñia eta Ziburuko ikastolentzat. Izan ere, Urruñako jaialdian ere jende ugari bildu zen pasa den azaroaren 25ean. **Niko Etxart eta Apa apa taldearen kantaldia izan zen orduan, eta 800 pertsona elkartu ziren.** “ Ekitaldi hunkigarria izan zen, ikastoletako guraso eta familia anitz bildu dira, baita inguruko

ikastola martxan jartzen hasi ziren hainbat guraso, eta proiektu horri babesa emateko diru poltsa bat lortzeko kanpaina abiatu zuten Goierriko eragileek, *Harriz harri* izenekoa. **Proiektu hark emaitza positiboak lortu zituen, eta ondorioz, ekimenarekin aurrera jarraitzea pentsatu zen. 1997az geroztik ari dira elkarkidetzaz horretan lanean.**

“ Hasiera batean, bi jaialdi egiten hasi ginen, larunbatean Ordizian, eta igandean, berriz, Urruñian” , oititzen du Zinkunegik. Hartan, Goierriko hiru ikastolek antolatzen zituzten ekitaldiak. Gerora, hiru ikastolen artean, Ipargoko kultur elkarte osatu zuten, eta orain elkarte hori da ekimena antolatzen duena.

Denborarekin antolaketa hobekuntzak txertatu, eta jaialdiak asteburu berean egin beharrean,

azaroan Lapurdiko emanaldia egin, eta urte amaiera aldean, berriz, Goierrikoa egitea pentsatu zen. Hamasei urteko epe horretan, euskal musikagintzako abeslari eta sortzaile ugari igaro dira bateko eta besteko tauletatik. **Besteak beste, Mikel Laboa, Benito Lertxundi, Oskorri, Kepa Junkera, Ande Duhalde, Mixel Ducau, Amaia Zubiria, Maddi Oihenart, Mikel Markez, Tapia eta Leturia, Niko Etxart eta beste hainbeste.**

2003az geroztik, ordea, aldaketa gehiago egin zituzten antolaketa mailan. Ordizian Pirritx eta Porrotx pailazoaren emanaldia eskaintzen hasi baitziren urtero. Era horretan, jaialdia haurrengana ere hurbildu da.

“ Jendea erruz etortzen da, eta betekada egoten da” , dio Jose Mari Agirretxe *Porrotx* pailazoak. Gauzak horrela, **abenduan Ordizian egiten den jaialdian bi emanaldi**



azpimarratzen du, eta horrek hainbat harridura ere sorrarazi ditu ikasleen artean. " Pasa den urtean, esaterako, haur batzuk harritu egin ziren ikustean Iparraldean euskaraz ere hitz egiten dutela", nabarmendu du. Zentzu horretan, Euskal Herria bere osotasunean ikusteko aukera ematen die ikasleei Zinkunegiren ustez.

Agirretxe ere iritzi berekoa da: "Era honetako ekimenek muga psikologiko hori apurtzen laguntzen digu, eta urteetako lanak ahalbidetu du haurrak, irakasleak eta gurasoak elkarren artean lanean aritzea", dio. Zentzu horretan, Ordiziako jaialdian parte hartzen ari diren hamar urte hauetan, bilakaera positiboak ikusi du pailazoak: " gero eta gehiago elkar ezagutzen dugu", dio.

Elkarlanari esker mugaren beste aldeko ikastolek aurrera jarraitzeko aukera izan dute. "Nahiko nuke egunen batean era honetako elkarlanik egin behar ez izatea. Izatekotan, hala nahi dugulako elkartzea nahiko nuke", dio Agirretxek. Oraindik errealitate horrek urrun egoten jarraitzen du, eta denbora tarte batez, bederen, Goierri eta Lapurdiko ikastolen artean elkarlanak aurrera jarraitu beharko du. Eta horren lekuko da, Urruñako eta Ziburuko ikastola biak ikasle kopurua etengabe hazten ari direla. Egindako lana alferrikakoa izan ez denaren seinale.

herrietatik ere", dio Larzabalek.

Lagungarria, eta hezigarria

Bi eskualdeen arteko elkarkidetzari, ordea, ez da ekitaldien antolaketara eta diru biltzetara bakarrik mugatzen. Horretaz gain, elkar ezagutzeak ere garrantzia handia dauka. Era horretan, Urruñako ekitaldira Goierriko ikasleak joaten dira, eta baita alderantziz ere. Gainera, jaialdietan parte hartzen dute, "oso aberasgarria da eurentzat", dio Zinkunegik. Era horretan, hango eta hemengo haurrek elkar ezagutzen dutela

Urtetik urtera emendatzen

Urruñako ikastola 1995. urtean sortu zen, 14 ikaslerekin. Hastapen horietan, abiapuntu apala izan zuen ikastolak, parrokiak utzitako 40 metro karratuko gela batean ematen baitzituzten klaseak. Bi urteren buruan, ordea, kopurua ia bikoiztu egin zen, 26 ikasletara, eta pabiloi prefabrikatu batzuetara eraman zituzten klaseak. Ez zen denbora asko behar izan pabiloi horiek uzteko. 1999an, Euskal Herri osotik bildutako diruari esker ikastolak eraikin berria altxatu zuen, hartan 35 ikasle zirela. 2005ean, eraikina txiki geratu zen, eta handitzeko lanak egin zituzten, sei gela berri erantsiz. Hartan 64 ikasle zeuden Urruñako ikastolan izen emanda. Hazkundera urtetik urterako kontua da, eta une honetan eraikina handitzeko beste proiektu bat garatzen ari dira. Jangela berri bat egin nahi da, eta beste bost gelaz gain motrizitate gela bat ere txertatu nahi diote eskaintzari. Une honetan, 110 ikasle daude bertan.

Ziburuko Piarres Larzabal kolegioak bere aldetik, Urruñakoaren antzeko bilakaera izan du. Hau da, goranzkoa. 1998an sortu zen Seaskaren babesean, 4 gela eta 75 ikasle zituelarik. Bi urteren buruan, kopurua nabarmen emendatu zen, 180 ikasletaraino. 2005ean, eraikin berria egiten hasi ziren, eta hurrengo ikasturtea 12-16 urte arteko 204 ikaslerekin hasi zuten. Lapurdiko kostaldean dagoen lizeo aurreko ikastolarik handiena da egun. 210 ikaslerekin hasi dute ikasturtea, 200 familia elkartzuz.

Urtetik urtera handitzen ari diren bi ikastola dira, beraz, Urruñakoa eta Ziburukoa. Hori dela eta, Goierriatik jasotzen duten laguntza oraindik ere beharrezkoa izango dutela gauza ziurra da.



16 años de trabajo entre las ikastolas de Goierri e Iparralde: imprescindibles para la supervivencia

Las ikastolas tienen unas señas de identidad propias; son impulsores del euskera y de la cultura vasca, y además son solidarias entre sí. Prueba de ello es el hermanamiento de las ikastolas de Ordizia, Beasain y Lazkao con las de Urruñu y Ziburu. Llevan dieciséis años trabajando conjuntamente, con el claro objetivo de impulsar las ikastolas de Lapurdi. Año tras año se organizan festivales para recaudar fondos, “es una fuente de ingresos imprescindible para nosotros”, dice Maritxu Larzabal, miembro de la ikastola de Urruñu. Además, la necesidad aumenta cada año. Y es que, curso tras curso, las matriculaciones aumentan. Para responder a esta necesidad, la asociación Ipargoikoa — asociación cultural creada por las tres ikastolas del Goierri— trata de recaudar más fondos gracias a la colaboración de ayuntamientos de la zona, empresas y asociaciones culturales. “La situación económica es complicada en ambos lados de la frontera, por eso sabemos que no es fácil recaudar ese dinero”, dice Larzabal.

En 1995 un grupo de padres de Urruñu decidió montar una ikastola en su municipio, y empezaron a recaudar dinero en Goierri para ayudar en su causa. Aquella campaña fructífero, y a raíz de esa experiencia, empezó el hermanamiento entre las dos comarcas. Corría el año 1997 cuando se hizo el primer festival a favor de la ikastola de Urruñu. “En aquella época, hacíamos dos festivales: el sábado en Ordizia, y el domingo en Urruñu”, explica Agus Zinkunegi, miembro de la asociación Ipargoikoa. Pero con el tiempo se mejoró en organización. En noviembre se celebraba un festival de Urruñu, y en diciembre otro Ordizia. En el período de 16 años, han pasado por los escenarios varios artistas vascos. Entre ellos, Mikel Laboa, Benito Lertxundi, Oskorri, Kepa Junkera, Andde Duhalde, Mixel Ducau, o Niko Etxart. A partir de 2003, sin embargo, los payasos Pirritx eta Porrotx empiezan a participar en el festival de Ordizia, haciendo partícipe al público infantil. “Suele venir mucha gente”, comenta Jose Mari Agirretxe, *Porrotx*. Tanta gente, que suelen ofrecer dos sesiones el mismo día (en total, acuden unas 4.000 personas). “Para nosotros es una suma muy importante”, dice Larzabal. Este año, además, los payasos Pirritx eta Porrotx ofrecerán una actuación especial, con motivo de su 25 aniversario.

Experiencias educativas

El hermanamiento entre las ikastolas de Hegoalde e Iparralde, tiene como objetivo el conocerse mutuamente. En ese aspecto, los alumnos de Urruñu y Ziburu suelen acudir al festival de Ordizia, y viceversa. “Es una experiencia muy enriquecedora”, explica Zinkunegi. Y es que, de esta forma los alumnos tienen ocasión de conocerse entre ellos. “Es una forma para conocer Euskal Herria en su totalidad”, dice. El payaso Agirretxe por su parte, destaca el desarrollo que se ha dado en diez años: “Con este tipo de actividades ayudamos a que se desvanezcan las fronteras psicológicas entre ambas comunidades. Ahora nos conocemos mejor, y eso es muy positivo”.

Gracias a este hermanamiento, las ikastolas de Urruñu y Ziburu están manteniendo su proyecto educativo. “Ojalá que no tuviéramos ninguna necesidad para tener que hacer estos festivales”, dice Agirretxe. Pero mientras las matriculas sigan incrementandose, las ikastolas dependen de estas ayudas para seguir adelante.

ZABORRA KUDEATZEN

Zaborra, zaborra eta zaborra... Hondakinak, hondakinak eta hondakinak... Tamalez, geroz eta zabor eta hondakin gehiago sortzen dugu. Irteerarik ba al daukagu? Jakina! Saiatu beharko dugu irteeraren bat aurkitzen. Saiatu beharko dugu sortzen dugun hori ondo kudeatzen.

Horretan aritu dira gure 6. mailako neska-mutilak eta bai ondo aritu ere!

Sasietak antolatuta, bi saioko ikastaroa jaso dute gure ikasleek. Goizez, saio teorikoa eta arratsaldean praktikoa; hau da, goizean, zenbat zabor sortzen dugun, nola kudeatu dezakegun hori guztia eta gure ikasleek zituzten galdera eta zalantzak argitzen saiatu ziren Sasietatik etorritako arduradunak. Arratsaldean,

goizean ikasitakoa praktikan jarri zuten jokuen bidez.

Orain gure ikasleak jakitun dira zer produktu bildu behar dugun, eta zer non sartu behar dugun. Hitz batez esateko, ondo asko dakite nola kudeatu behar dugun zaborra.

Galdetu iezaiezu zuen seme-alabeei. Era horretan, ea guztion artean ingurugiro garbi eta freskoagoa lortzen dugun.

Basura, basura, basura... Residuos, residuos, residuos... Muy a nuestro pesar, cada vez producimos más residuos. ¿Tenemos alguna solución? ¡Por supuesto! Gestionarlo mejor. En eso han estado trabajando los alumnos de 6º.

Organizado por la mancomunidad de Sasietak, los alumnos han recibido un curso sobre la gestión de la basura. Por eso, de ahora en adelante, nuestros alumnos se han convertido en verdaderos expertos y conocedores en dicho tema.



UNIBERTSO TXIKITIK HANDIRA



Jakintzaren unibertsoa, besteak beste, gurasoek, ikasleek eta irakasleek osatzen dugula, esan beharrik ez da. Hau da, guztiok gara partaide gure ikasleen heziketan.

Ez dira egun asko gure 5. mailako neska-mutilak Unibertsoa lantzen aritu zirela. Lehenik eta behin, bakoitzak zekiena azaldu zuten; ondoren, jakin-mina asetzeko galdera pila bat prestatu zituzten; eta azkenik, fisikan aditua den guraso bat ekarri zuten gelara beraien jakin-mina asetzeko.

Guraso hori luzez aritu zen ikasleen galderak eta zalantzak argitzeko lanetan. Interes handiz eta gustura jarraitu zuten ikasle guztiak saio hori, eta uste dugu ez zaiela berehalakoan ahaztuko egun horretan unibertsoaz ikasi zuten guztia.



La comunidad de Jakintza lo formamos los padres, los alumnos y los profesores. Todos ellos somos parte del proceso educativo. Por eso, los alumnos de 5º, han estado trabajando en torno al universo. En primer lugar, cada estudiante expuso lo que sabía acerca de esta materia, y después prepararon multitud de preguntas. Para finalizar, invitaron a la ikastola a un padre experto en física. Estuvieron realmente atentos a sus explicaciones.

MAKETA BIRZIKLATUAK

Zaborrari bigarren bizitza ateratzeko irudimenik ez daukazuela? 3. mailako haurrengana hurbildu ez zaretelako izango da, orduan. Ohiko etxerako lanekin ez aspertzeko asmoz, bestelako lan bat proposatu zaie ikasleei: maketa edo prototipo bat eraikitzea birziklatutako materialak abiapuntutzat hartuz. Esperientzia honekin bistan geratu da

hondakinekin edo zer gauza egin daitekeela: hondartza bat, automobilak, edo burura etor daitekeen edozer.

Beraz, zerbait zakarretara bota behar duzueenean, birritan pentsatu, agian zerbait polita egin baitaiteke berarekin!



GORPUTZAREN ATALAK IKASTEN



Haurrengan, ikasketa prozesua etengabekoa da. Oraingoan, gorputzeko atalak ikasten aritu dira 2 urteko haurrak klasean. Horretarako, paper gainean etzan eta euren burua marrazten aritu dira. Marrazkien bidea ikasteko aproposa baita. Non dago sudurra? Eta belarria?



KLASERAKO ERLAXATZEN

Ikastolara ez dago urduri etorriko den inor! Eta hala izango balitz, ez eduki kuidadorik, berehala lasaituko baita. Izan ere, 4. mailako ikasleek erlaxazio ariketak egiten baitituzte eguneroko lana hasi aurretik. Era horretan, euren buruak kontrolatzen ikasten dute, eta era berean, klaseak emankorragoak dira. Ikusi irudietan zeinen gustura ageri diren! Eta besaulki horiek? Horrela



bai, joan liteke ikastolara! Nork esan zuen ikasleen bizitza gogorra dela?



Si no sabéis qué hacer con los residuos amontonados en el cubo de la basura, no tenéis más que acercaros y ver lo realizado por los alumnos de 3º. Y es que han elaborado diferentes maquetas con materiales reciclados.

El proceso de aprendizaje en los niños nunca se interrumpe, y en esta ocasión, los alumnos de 2 años han aprendido cuales son las diferentes partes del cuerpo humano.

Todos los alumnos tendrían que venir relajados y tranquilos a la ikastola. Y si así no fuere, tener la seguridad de que antes de comenzar la clase se relajarán en la ikastola. Eso es lo que hacen los alumnos de 4º. Están aprendiendo a realizar ejercicios de relajación. ¡Incluso tienen sofás para la ocasión! Así sí! ¡No cuesta mucho acudir a clase!

INURRITEGIA

4 urtekoek *udazkena* gaiaren barruan, *Inurria eta Txirrita* ipuina ardatz hartuta, inurritegi baten maketa egin dute. Proiektu hau gauzatzeko zenbait urrats eman dituzte: inurritegiaren itxura hartzeko paperari kola eman eta behin gogortuta margotu. Guztia lehortu ondoren, ikastolako jolastokian bildutako eta etxetik ekarritako hosto eta fruituekin apaindu zuten inurritegia. Maketa

horretan plastilina egindako perretxikoak ere ez dira falta izan. Deigarrienak, ordea, inurriak izan dira; ezkurrekin, hurrekin eta txotxekin egindako inurriak. Benetan ikusgarriak geratu dira hiru inurritegiak! Gure haurrek asko gozatu dute beraien inurritegia egiten eta gurasoek ere seme-alabak zein artistak diren ikusteko aukera izan dute erakusketan!



DENBORAN BIDAIATZEN

Denboran aurrera edo atzera? Nahi duzuen bezala, baina orain arte posible ez zena gauzatu dute lehen mailako ikasleek: *Denboraren makina*, hain zuzen ere. Ikasleak gogotik aritu dira lanean proiektua gauzatu ahal izateko. Baina nekeak neke, emaitza iritsi da, eta aurrerantzean nahi duten adina bidaiatzeko aukera izango dute ikasleek. Zuek ere, hala nahi izanez gero, eska iezaiezue eurei.



Los alumnos de 4 años han construido un hormiguero tomando como punto de partida el cuento de *La cigarra y la hormiga*. ¡Qué bonito les ha quedado el hormiguero! Los padres han disfrutado viendo la obra de arte que han hecho sus hijos.

¿Queréis viajar en el tiempo? Hasta ahora, lo que parecía imposible, ahora no lo es. Los alumnos han estado trabajando intensamente para sacar el proyecto adelante.

irteerak

XIII. mendera salto

DBH 2, 3 eta 4ko ikasleek XIII. mendera jauzi egin zuten Ordiziako Herri Antzokira egin zuten irteeran. Bertan, Asisko Urmeneta eta Juanjo Elordiren Gartzot filma ikusi zuten, garai hartako bardo baten bizitzan oinarritutako lana. Gartzot filmak Nafarroako konkista eta kultura ezabatze prozesuak nola eta zeinen eskutik gauzatu ziren erakusten ditu. Asko ikasi zuten, beraz, filmarekin!

Arrikrutzeko kobetatik barrena

Lurrazalaren itxuraldeketa gaiarekin lotuta, 6. mailako ikasleak Onatiko Arrikrutzeko kobetara joan ziren. Lurraren historia eta bilakaera ulertzeko leku aproposa da, ezbairik gabe.



Nolako txabola!

Erriberrik badu "txabola" eder bat. A zer nolako txabola! Nafarroako erregeen bizileku izan zen bera. Gehienek Erriberriko gaztelua esaten dioten arren, eraikina jauregia da, gorte eraiko eraikuntza baita, bertan bizitzeko eta ez eginkizun militarreko egina. Jauregiaren zatirik handiena Karlos III.aren garaian egin zen eta Europako ederrenetakoa zela zioten. Eraikuntza egitza, lorategiz eta lubakiz osatua dago, harresiz inguratua eta dorre ugari hornitua. Hala ere, zoritxarrez, jauregia ez dago gaur egun XVI. mendera arte zegoen bezala. Inbasioak, utzikeria eta sutea, jasan ondoren, mende honen hasieran berritu egin zuten. Oraindik bukatu gabe dago berrikuntza osoa, asmoa jauregiaren berezko egitura berreskuratzea baita.

LH2ko ikasleek bere dorre eta harresietatik ibiltzeko aukera izan dute, leku ikusgarri bezain magikoaz gozatzen, eta egun batez bederen, errege, erregeina, printze edota printzesa sentitzen.



1986an jaiotakoak, Ezkio-Itsasoko Aristizabal baserrian. Ogia labean sartu aurretik, egurra biltzen.



jakintzaikastola

Altamira auzoa z/g

tfno. 943 16 05 40

faxa. 943 16 07 90

20240 ORDIZIA

ordizia@ikastola.net

